

## MUSIKA ESTILOAK

Deskribapena: Lehenengo, Iñaki Pierola kitarra jotzen eta, Galeseko haurrak Ken Zazpiren “Ilargia” abestia abesten ikusten da. Ondoren, Anne Etchegoyen agertzen da “Txoria txori” abestia abesten. Jarraian, “Amuma says no” taldea kontzertu batean agertzen da eta, azkenik, Madonna Kalakan hirukotearekin ere kontzertuan ageri da.

Kike (off ahotsa): Kitarra jotzen duen Iñaki Pierola gasteiztarrak erraz asko gaintitu zituen mugak bere Galeseko ikasleei Ken Zazpiren “Ilargi”-a abestia irakatsi zienean. Baina mugak gaintitzeko era bat baino gehiago dago, Anne Etchegoyenek adibidez euskal kantagintza tradizionala Euskal Herriko mugetatik kanpora zabaldu du. Boise-ko “Amuma says no” taldeak ere transmisio lan txukuna egin du Estatu Batuetan. Eta nork esan behar zigun Madonnak berak ere euskeraz abestuko zuenik! Agian, euskarak mugarik ez duela pentsatzen hasi beharko genuke. Hori bai, iparraldeko hirukoteak tinko mantentzen ditu bere sustraiak.

Deskribapena: Kalakan hirukotea Kantuz abestia abesten ageri da.

Kike (off ahotsa): Eta, “Kantuz” abestia entzuten ari garela, duela hamabost urte, Baiona Kantuz ekimena hasi zenetik, geroz eta jende gehiago ateratzen da kalera kantatzera.

Deskribapena: Kantujirako imajinak ageri dira leku desberdinetan.

Kike (off ahotsa): Bai Baionan, bai Donibane Garazin, bai Iruñean, bai Donostian baita beste hiri eta herri askotan ere. Hala ere, bertan, gazte gutxi ikusten da. Agian, gazteen eta, horren gazte ez garenon musika gustuak ez direlako berdinak. Hala ote da? Ba, gu kalera atera gara eta, gazteei galdetu diegu ea zein den euskeraz gehien entzuten duten musika estiloa.

Deskribapena: Kike gazteekin kale inkesta egiten ageri da.

Lehenengo neska: “Gehiena entzuten dudana eta gehien gustatzen zaidana hau, Ska!. Dalako, ez dakit, musikarik animosoena edo... hola dantzatzeko eta...”

Lehenengo bikoteko mutila: “Ken Zazpi.”

Lehenengo bikoteko neska: “Bai hori. Hori ze estilo daka?”

Bigarren bikoteko lehenengo mutila: “Nik Rock-a batez ere.”

Bigarren bikoteko bigarren mutila: “Nik uste det Ska! bastante dagola baina Rock&Roll-a gustatzen zait ere bai.”

Hirugarren bikoteko lehenengo neska: “Nik Pop. Pop-a aukeratuko nuke.”

Hirugarren bikoteko bigarren neska: “Ni ere bai.”

Hirugarren bikoteko lehenengo neska: “Nik Ken Zazpi gehien bat eta Ska! ere gustokoa det baina nahiago det Ken Zazpi-n estiloa.”

Hirugarren bikoteko bigarren neska: “Eske ni euskeraz ez dut asko entzuten...”

Laugarren bikoteko lehenengo neska: “Nik Pop-a.”

Laugarren bikoteko bigarren neska: “Eta nik Rock&Roll-a.”

Bigarren neska: “Pues gustokoen Rock&Roll-a.”

Kike: “Bai? Ta ze talde edo?”

Hirugarren bikoteko lehenengo neska: “Nik Ken Zazpi.”

Hirugarren bikoteko bigarren neska: “Berri Txarrak.”

Bigarren neska: “Kortatu, Delirium Tremens, gero Mikel Laboa eta hola ere miño ez dakit hemen...”

Hirugarren bikoteko lehenengo neska: “Nik beti euskeraz, gehienbat.”

Hirugarren bikoteko bigarren neska: “Inglesez ere bai.”

Hirugarren neska: “Ez dakit, hemen Pop. Eske, batez ere hauren musika entzuten det baino ez det ikusten, igual erlazio zuzenagoa dakalako.”

Kike: “Rock-a? Eta ze talde edo?”

Laugarren neska: “Ba, bueno, Berri Txarrak...”

Bigarren bikoteko bigarren mutila: “Berri Txarrak adibidez, gero Sixty sexers, eta gero Odolaren mendekua ere bai.”

Bosgarren neska: “Nire gustokoen da Indie musika, Pop-a eta Rock&Roll-a eta bueno, Folk musika baita. Baina batez be Indie musika.”

Kike: “Eta euskeraz zein da batez ere entzuten duzuna?”

Bosgarren neska: “Euskeraz gustatzen zait ba Gatibu adibidez.”

Kike: “Orduan?”

Bigarren neska: “Bueno, Rock&Roll jarriko det.”

Lehenengo mutila: “Baina gehienez, e, ba, erderaz eta ingelesez entzuten det musika.”

Bigarren mutila: “Neri Ska! gustatzen zait gehien, Betagarri eta Skalariak bezelako taldeak adibidez.”

Bigarren bikoteko lehenengo mutila: “Hip-Hop-a nik ez det ezagutzen ezer ez.”

Bigarren bikoteko bigarren mutila: “Gero Heavy-a ere bai pixka Su ta gar-ekin eta igual ikusten da ta baina bueno, gehien bat Rock&Roll-ak dakala indarra nik ustet.”